



Hertzainak. Azkena gure alde

2019an Bilboko Kafe Antzokian eta Euskaldunan eskainitako kontzertuek, sorrarazitako emozioak zale gehiagorekin partekatzeko gogoia utzi zien Josu eta Gariri. Pandemiak eten zuen gogo bizi bat erne zitzaien kontzertu haien ondorioz: *Bilbon bizitakoak Gasteizen ere bizitzea lortu behar genuke. Bertan hasi zen dena eta bertan bukatzea zor diogu. Egin dezagun azkena gure alde, sortzen ikusi gintuen hirian. Horrenbeste merezi dugu bai Hertzainaken zaleek bai guk. Egin dezagun azken gure alde.*

2019 kontzertuekin alderatuta, azken emanaldi hauen hiru balio erantsi nabarmendu beharrean gaude:

- Baga, Luis Javier Saiz *Txanpi* hasieratik taldearen bateria izan zenak parte hartuko du kontzertuotan.
- Biga, 2019ko kontzertuak nostalgia barik, inolako penarik gabe, poz handiarekin eta bizitzarekiko maitasun sakonarekin eskaini bazituzten, mundua inarrosi zuen pandemia baten ostean eta mundu mailako gerra hotsen artean, bizitzarekiko are maitasun handiagoaz eskainiko dituzte Hertzainaken kantak.
- Higa: Emanaldiok taldea sortu zeneko 40 urteurrenarekin bat egiten dute.

Gaur egungoengandik ezberdin baina oso antzeko, urte sano gatazkatsuetako soinu bandaren parte izan ziren Hertzainak. Espainolez kantatzeko hautua egin zuten RRV legez ezagutzen den etiketa osatu zuten talde gehienek. Hertzainakekoek ez. Gasteiz oso erdaldun batean, punkiak izateko ezinbestean euskaraz kantatu behar zutela erabaki zuten, hein handi batean, lagun eta inguruko erdaldunek behartuta.

Euskaldunentzat zein erdaldun askorentzat erreferente bihurtu zituen hautu horrek, eta Hertzainaken kantagintzaren arrastoa, eragina edota zantzoak, 2022an kantagintzan euskaraz ari diren talde batean baino gehiagotan igarri daitezke. Bai hizkuntzaren hautuari dagokionez, bai hautu estetikoari dagokionez, bai jarrerari dagokionez.

Punk jarrerak aurrekoaren eta ordukoaren kontra egitera bultzatu zituen. Sistema ororen aurka. Eta era berean, halabeharrez, katebegi bihurtu ziren, aurrez euskaraz

kantatzeko hautua egin zutenen eta gaur egun euskaraz kantatzeko hautua egin dutenen artean.

Oroitzapenen berpizte kolektibo bat izango dira Hertzainaken emanaldiak. Orduko porroten eta gaurko lorpenen balantza bat. Orduko lorpenen eta gaurko porroten gorazarre bat. Izan ere, 2019ko Euskaldunako eta Kafe Antzokiko kontzertuak bizi izan zituztenek sentitu zuten, kanta askok, 30 urte beranduago, zeresana dutela, kanta haiek gaur ere badirela, korapilo askok askatu gabe dirautelako, arazo asko konpontzeke ditugulako eta gaur garen orduko haiek jakitun garelako.

Aspaldion askoren ahotan dagoenarekin bat eginez, transmititu dezagun euskarazko kantagintzaren historia eta oraina biharkoek euskaraz kantatzeko hautua egin dezaten, euskarazko kantagintzak luzaroan bila dezan bere bidea.

Emanaldiak

Bi emanaldi eskainiko ditu Hertzainakek:

- Abenduaren 16an Barakaldoko BECen

Milaka lagun bilduko dituen gaua izatea nahi genuke, horregatik aukeratu dugu ezustekoz beteriko emanaldi gogoangarri bat eskaintzeko moduko aretoa.

- Urtarrilaren hasieran Gasteizen

Gasteizekoa bilduagoa izatea aurreikusten dugu, lagunarteko agur ospakizun bat. Horretarako aproposa den aretoa hautatu dugu, gure aldeko azkena eskaintzeko neurrikoa.

Talde gonbidatuak eta ezustekoak

Bi emanaldiotan, hainbat musikarik parte hartuko dute bai Hertzainaken emanaldien aurretik bai bitartean.

Ordutegia

- Abenduaren 16an

19:00 atea ireki

20:00 gonbidatutako musikariak

22:00 Hertzainak

Sarrerak

Sarrerak urriaren 5eko goizeko 11:00etan jarriko ditugu salgai www.hertzainak.eus webgunean.

Urriaren 4an, Kutxabankeko bezeroek aurrez erosteko aukera izango dute.

Sarreraren zenbatekoa

Prezioak 29, 40 eta 45€ artekoak izango dira, aukeratzen den kokaleku edo eserlekuaren arabera.

BIOGRAFIA

Egilea: Koldo Otamendi. Iturria: Badok.eus

Euskaraz landutako rocka ulertzeko, ezinbesteko taldea da Hertzainak. Beste asko bezala, taldekideak bidean egin ziren musikari, eta nabaritu zen taldearen garapenean, hasierako punk erritmo britainiarretatik rock giro klasikoetaraino, eta tartean ska erritmoak eta folk kutsuko melodiak jorratuz. Diskografia oparoa utzi zuen taldeak (sei disko eta hainbat single eta EP), eta oraindik ere entzuten dira haren kantuak. 1978an hasi zen Hertzainak izango zenaren hezurdura osatzen, Gasteizen, eta 1981eko Urtezaharrean jo zuen aurreneko aldiz zuzenean. Taldearen azken emanaldia 1993ko urriaren 30ean izan zen, Izarran (Araba), Kubaren aldeko jaialdi batean.

Garaiko beste musika taldeen antzera, Ingalaterrako punk mugimendua izan zuten abiapuntu eta eredu Hertzainak taldea sortzeko unean. Rockgiroa elkartu nahi zituzten, eta musika eta hitzak erabilitako formula. Testuinguru politikoak garrantzi handia izan zuen taldearen sorreran, eta lehen garaiko kantuen hitzek ere norabide horretan jotzen zuten: kaleko giroa islatu, Poliziaren errepresioa salatu eta batzokietako jeltkideen kontra jo zuten, besteak beste.

Josu Zabala Ajuriagerra eta Xabier Montoia izan ziren taldearen sortzaileak, eta haiek mamitu zuten lehen urteetan Hertzainak-en izaera. Lehen uneko taldekide aldaketak izan ondoren, honako hau izan zen 1981eko Urtezaharrean taula gainera igo zen taldea: Xabier Montoia Gamma (ahotsa), Josu Zabala Ajuriagerra (baxua), Kike Saez de Villaverde (gitarra), Curro (bateria), Tito Aldama (saxofoia) eta Delfo (gitarra). Taldearen inguruan ibili ziren Gerardo Pozo Gene gazte gasteiztarra eta Karra Elejalde aktorea ere.

Lehen emanaldiak egin eta gero, taldean aldaketa nabarmenak gertatu ziren. Curroren ordean, Luis Javier Saiz Txanpi sartu zen bateria astintzera, eta Delfok ere taldea utzi zuen. Aldaketa nabarmenena 1983ko irailean izan zen, Xabier Montoia taldetik kanpo geratu eta gero (M-ak taldean agertuko zen geroago). Horrela, hilabete batzuk abeslari finkorik gabe aritu eta gero, Iñaki Garitaonandia "Gari" sartu zen abestera. Legazpiko Ziper taldeko abeslaria zen Gari orduan.

Kideak erabat finkaturik, taldearen lehen maketa grabatzera sartu ziren IZ diskoetxearen estudioetan. Horretarako, taldearen zortzi kantu esanguratsu prestatu

zituzten, eta Angel Katarain soinu teknikari lanetan zela erregistratu zen kasete formatuan kaleraturiko lana. Maketako kantuak zitzu bizian zabaldu ziren Gasteizen, eta, apurka-apurka, Euskal Herri guztian jotzen hasi zen Hertzainak. Kontzertu mordoa egin zuen taldeak garai horretan; besteak beste, Tuteran tiro eremuaren kontra egindako kontzertu mitikoan jo zuen. Bertan, Zarama, RIP, Eskorbuto, Barricada eta beste hainbat talde ere aritu ziren. Kontzertu horren karira sortuko zen, hain zuzen, Euskal Rock Erradikala deitura. Denbora luzez lagunduko zuen deitura horrek taldea.

1984. urtea indartsu hasi zen Hertzainak-entzat. *Egin* egunkariak antolatutako Egin Rock txapelketan, irabazle suertatu zen Araban, La Polla Records taldearekin lehia gogorra izan eta gero. Urte hartan bertan, Espainiara atera zen lehenengoz, eta lehen diskoa prestatzeko lanetan hasi. Urte amaieran argitaratu zen Hertzainak taldearen lehen disko luzea, Hertzainak (1984), Soñua diskoetxearen babesean, eta Marino Goñik egin zituen ekoizpen lanak. Soinu hartzea, Donostiako Tsunami estudioan egin zuten, eta teknikari Oscar Clavel Brujo aritu zen. Taldeak sortutako hamar kantu jasotzen ditu, tartean maketako hiru kantu. Disko horretakoak dira denborarekin ereserki bihurtu direnzenbait kanta; esaterako, "Ta zer ez da berdin", "Pakean utzi arte", "Kamarada" eta "Si vis pacem, parabellum". Diskoa ixteko, "Arraultz bat pinu batean" aukeratu zuten, geroago Euskadi tropikala leloaren zabaltzea ekarriko zuena. Natxo Etxebarrietak (Cicatriz), Gasteizko La Banda Municipal de Skak eta Ruper Ordorikak kolaboratu zuten diskoan.

Arrakasta itzela izan zuen diskoak. Hertzainak-en kantuek argi islatzen zuten kalean zer egosten ari zen. Poliziek ezartzen zuten kontrol zorrotza ("Kontrola"), biolentziaren zirkulu itxia ("Si vis pacem, parabellum"), ezberdin sentitzearen inguruko gogoeta ("Ta zer ez da berdin"), euskaldun izatearen afera ("Drogak AEK'n"), estatuaren kontrako borroka ("Pakean utzi arte")... Era berean, festa eta adarjotze kutsua nabari zen testuetan. Erraz irentsi zuen diskoa borrokarako eta festarako prest zegoen gazteriak.

Lehen diskoaren arrakasta barruratzeko astirik gabe, beste disko bat grabatzen hasi zen taldea 1985eko udan. Hau dena aldatu nahi nuke bigarren diskoan (Soñua, 1985), musika garapena nabarmena da aurreko lanaren aldean. Kantu batzuetan hasierako bideari jarraitu bazioten ere, jai giroak eta ska erritmoek apenas duten lekurik ("Egunero", The Selecters taldearen bertsioa). Ilunagoa da, eta barrura begira egindako kantuak nagusitzen dira. Grabazioan ere arazoak izan zituzten, eta, soinuari dagokionez, azken emaitza ez zen izan taldeak desio zuena. Hitzen gaiak ere aldatzen hasi ziren. Nahiz eta kaleko bizitza islatu, kontu pertsonalak eta bestelako gogoetak nagusitu ziren. Hala ere, taldearen kantu enblematikoetako bi gordetzen ditu disko horrek: "Eutsi gogor", Euskalduna ontziolako langileei eskainitako kantua, eta "Hil ezazu aita", batzuen arabera euskarazko lehen rap kantua.

Salgai jarri ziren lehen 2.000 aleek single bat zekarten opari, beste lau kanturekin: maketa garaiko "Galtzailea" eta "Rock&roll batzokian", inoiz grabatu gabeko "Itxuiten nago" eta taldearen ereserkia, "Hertzainak": «Ixilik nola ez, hobe da abestu / eta gure musika mundu zaharra deuseztu...».

Soñua utzi eta Elkar diskoetxearekin grabatu zuen hirugarren diskoa, Salda badago (1988). Taldeak rockera bideratu zuen musika, eta guztiz desagertu ziren ska melodiak. Ordurako saxofoiak ez zuen tokirik taldearen musikan, eta, beste zenbait arrazoi zirela tarteko, Tito Aldama taldetik at geratu zen, Hertzainak laukote bihurtuz. Hala ere, disko horretan eta hurrengoetan taldearekin kolaboratu zuen Tito Aldamak. Salda badago grabatzeko, Ruper Ordorika aritu zen produkzio lanetan. Grabazioa

nahiko korapilatsua izan zen, eta, bobinan izandako arazoak zirela medio, grabazioa behin baino gehiagotan errepikatu behar izan zen. Tartean, Garik moto istripua izan zuen, estudiotik Gasteizera zihoala. Disko horretan, Bingen Mendizabalek lehen aldiz kolaboratu zuen taldearekin, eta urte batzuk geroago taldeko kide bilakatu zen.

"Esaioak" eta "No time for love" kantuak nabarmendu ziren disko horretan, biak folk ukituko baladak.

Amets prefabrikatuak (Oihuka, 1989) kaleratu aurretik, maxi-single bat argitaratu zuten. Hiru kantu horien artean, "Aitormena" zegoen, denborarekin taldearen kantu ezagunenetakoa izango zena. Hertzainak-en sona izugarri handitu zuen kantu horrek, talde entzule talde berri eta gazteago batera hurbilduz.

Diskoak "Aitormena"-ren moldaketa harrigarri bat zekarren, Bingen Mendizabalek hari instrumentuetarako moldatutako partitura jotzen baitzuen Gasteizko Jesus Guridi laukoteak. Kantuari are doinu malenkoniatsu eta gozoago bat eman zioten. Garai horretarako, rockaz gain bestelako eraginak nabari ziren taldearen musikan.

"Aitormena" izan zen diskoko izarra, "Bi minutuero" eta "564"-rekin batera. "Zuzen heriotzeraino" berreskuratu zuten, Montoia taldeko abeslaria zen garaikoa, eta Derribos Arias taldearen "Tupeak gora" moldatu zuten.

1990. urtearen amaieran, Kubara bidaiatu zuten, euskal kulturako kide batzuk biltzen zituen espedizio batean. Karlos Argiñano sukaldaria, Mikel Laboa eta Ruper Ordorika musikariak, Jose Luis Zumeta margolaria eta Bernardo Atxaga idazlea ere bazeuden espediziokideen artean. Bidaia horretan sortu zen "Guantanamo" kantuaren bertsioa egiteko aukera. Abesti hori eta beste hiru, tartean "Arraultz bat pinu batean" kantaren zuzeneko bertsioa, Mundu berria daramagu bihotzean EPan (Aketo, 1991) bildu zituzten. Diskoaren salmentan jasotako dirua Komite Internazionalistak erakundearentzat izan zen.

Horren aurretik, ordea, zuzeneko disko bat argitaratu zuten. Garai hartan, aski zabaldua zegoen taldea desagertuko zen zurrumurrua, eta zuzeneko grabazio horrekin mamuak uxatzea lortu zuten. Bergarako (Gipuzkoa) Txibisto aretoan prestatu eta grabatu zuten Zuzenean: 91-1-19 (Aketo, 1991). Grabaziorako antolakuntza lanak izugarriak izan ziren, eta, soinuaz gain, irudiak ere hartu zituzten, VHS formatuko bideoan argitaratzeko. Hain zuzen, zuzeneko lan horrekin estreinatu zen Aketo zigilua, taldeak berak beste hainbat lagunekin batera sortutakoa. Diskoetxe finkatu bat utzi eta diskoa bere kasa argitaratzera ausartu zen Hertzainak, Euskal Herrikoan ez ezik kanpoko merkatuan ere sartzeko ilusio handiz. Haatik, Aketoren abenturak ez zuen arrakastarik izan, eta handik bi urtera Aketo desegin eta betiko diskoetxera bueltatu zen.

Taldeak desegiteko erabakia hartu zuten Denboraren orratzak (Oihuka, 1992) grabatu zutenean -izenburua esanguratsua zen-. Lehen aldiz Garik parte hartu zuen hainbat kanturen konposizioan ("Bihurtuko zara, txo", "Zoratzen ari naizela"...), geroago hartuko zuen bakarkako bidea iragarritz, eta The Clash taldearen "I fought the law" euskarara ekarri zuten.

Euskal merkatuaren txikitasuna eta kanpora ateratzeko zailtasunak aipatu zituen taldeak desegiteko arrazoi gisa. Josu Zabala Ajuriagerraren hitzetan, «gurea gora egiterik ez izatera kondenaturik dagoen istorioa da».

Taldeak, agur esateko, kontzertu bira antolatu zuen Euskal Herritik barna, eta azken emanaldiak Iruñean (Anaitasuna kiroldegian), Gasteizen (bi egunez El Elefante Blanco aretoan), Donibane Garazin, Bilbon (Casilla kiroldegian) eta Donostian (Gaska kiroldegian). 1993ko urtarrilaren 24an, Donostiako azken kontzertuan, lagun ugari izan zituzten taula gainean: Ruper Ordorika, Evaristo (La Polla Records), Mahoma

(RIP), Tito Aldama, Bixente Martinez (Izukaitz, Oskorri, Hiru Truku), Xabier Amuriza, Jon Sarasua, Maialen Lujanbio eta Jon Maia bertsolariak, txistulariak, dultzaineroak... Festa giroa nagusitu zen taldearen agurreko kontzertu ofizialean. Hilabete batzuk geroago, ordea, urrian, Kubari elkartasuna adierazteko kontzertu bat egiteko elkartu zen Hertzainak laukote moduan. Hori izan zen Gasteizko banda taula gainera igo zen azken aldia.

Josu Zabala Ajuriagerra izan zen Hertzainak-eko burua. Harenak izan ziren taldea sortu zenetik 1990. urtera arteko melodia guztiak. Abestien hitzak, ordea, hainbaten artean sortu ziren: Xabier Montoia, Gerardo Pozo Gene, Curro, Bego, Karra Elejalde, Javi Okendo (Potato taldeko kidea), Josu Landa, Josu Zabala bera... Musikan bezala, hitzetan ere garapena gertatu zen urteak pasa ahala. Lehen hiru diskoetako kantuen eduki kritiko, adarjotzaile eta errebeldeek lekua utzi zieten intimismoari eta barne gogoetari, *Amets prefabrikatuak*-etik aurrera. Hala ere, taldeak beti jakin zuen hitza eta musika uztartzen eta, batez ere, lelo egokiak sortzen eta ereserki bihurtuko ziren esaldiak biribiltzen.

Diskografia

- *Hertzainak* (Soñua, 1984)
- *Hau dena aldatu nahi nuke* (Soñua, 1985)
- *Salda badago* (Elkar, 1988)
- Aitormena EP (Oihuka, 1989)
- *Amets prefabrikatuak* (Oihuka, 1990)
- *Mundu berria daramagu bihotzean* EP (Aketo-Komite Internazionalistak, 1991)
- *Zuzenean* (Aketo, 1991)
- *Onea* (Oihuka, 1991)
- *Denboraren orratzak* (Oihuka, 1992)
- *Une etengabeak* EP (Aketo, 1992)
- *Mundu berria daramagu bihotzean* (Oihuka 1999)
- *Kafe Antzokian* (Josu Zabala & Gari) Erroa, 2019

www.hertzainak.eus

Facebook: <https://www.facebook.com/Hertzainak>

Instagram: https://www.instagram.com/hertzainak_ofiziala/

Twitter: <https://twitter.com/hertzainak?fbclid=IwAR1Tj4XFIoHEnQS8shaU0n555Rx4-Ji8x2UIW9IqUgiZjDVbt7lcep8reDk>

Komunikazio arduraduna

gotzon barandiaran arteaga
656 796 209 / g.barandiaran@digitalidadea.com
euskara eta kulturaren sarean